

EUSKO JAURLARITZA GEZURRA ESATEN ARI DA ZERRAJERAKO "PUTZUAREN"
GAIAN. EZ DUGU ONARTUKO ERANTZUKIZUNA UDALAREN GAIN UZTEA.

Eusko Jaurlaritzak erantzun dio EH BILDUren galderari Zerrajera eremuko "putzuari" buruz. Hemen doa gure irakurketa laburra gaiari buruz:

1.-Eusko Jaurlaritzak gainetik kentzen du erantzukizuna gaiari buruz eta ANV eta Bilduren legealdietako udalbatzei egozten die egoeraren errua. Guretzat hori onartezina da, gezurra eta erantzukizuna gainetik kentzeko amarru hutsa.

2.-2007ko abendutik hitzarmen bat dago indarrean Eusko Jaurlaritza eta Udalaren artean partzela horri buruz. Partzela horretan, lurzoru eskubidea ematen zaio Eusko Jaurlaritzari diru kopuru eta lokal batzuen truke. Lurzoru eskubidean etxebizitzak erregimen ezberdinean egin daitezke, salmentarako edo alokairurako. Ez du eskubide hori gauzatu Jaurlaritzak.

3.-Arrasateko Udalak azken urteotan alokairuko promozioen alde egin du, jarrera politiko kontsolidatua izan da hemerotekan ikus daitekeen moduan. Baina jarrera politikoa izan da, Jaurlaritzarekin ezin izan dena konpartitu hauen borondate ezagatik. Ez dago inongo lege oztoporik etxebizitzak, lurzoru eskubidea gauzatzuz, salmentarako ere izateko. Eusko Jaurlaritzak salmentarako etxebizitzak egin nahi izan balitu, Arrasateko Udalak ezin izango zukeen hori eragotzi.

4.- 2017ko hirugarren hilekoan eguneratutako Jaurlaritzaren datuen arabera Arrasaten 99 eskari daude etxebizitza erosteko erroldatu eta ez erroldatuen artean eta 488 eskaera alokairurako. Bost aldiz eskaera gehiago daude alokairurako, erosketarako baino beraz. Datuen eboluzioak, 2015eko Eusko Legebiltzarreko Etxebizitza Legeak eta legebiltzarreko akordio politikoek alokairu politikaren alde egiten dute.

5.-Jaurlaritzak dio oraingo legealdian desblokeatu dutela putzuaren partzelako gaia. Udaleko oposizioan ez dakigu ezer ofizialki horri buruz, eta susmoa dugu agintean den kolore politikoaren arabera jokatzeko duela Jaurlaritzak. Hori onartezina da EH BILDUrentzat.

6.-Pasa dira 10 urte eta ez da ezer egin. Guk uste dugu etxebizitzaren errealitatea asko aldatu dela krisiaz geroztik, eta gure alokairuaren aldeko apustua inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu.

7.-Egoerak soluzioa behar du, ez pilota batak besteari botatzen aritzea. Halere, ez dugu onartuko Jaurlaritzaren arduragabekeria eman den egoera hau guri leporatzea. Eskatzen diogu Jaurlaritzari asmakizunetan ez aritzeko eta soluzioak emateko.